

STEE-EILAS



OPOSAKETAK GAINDITU ETA GERO...

- Oposaketa gainditu dutenen behin-betiko zerrenda **abuztuaren 8an** EHAAn argitaratuko dutela ***aurreikusten da***.
- **Gorako helegitea** aurkezteko hilabeteko epea egongo da argitaratzen den egunetik. (*eredua dokumentu honen azpian*)
- EHAAn argitaratzen den egunetik, **20 egun natural** daude praktiketako funtzionarioek honako agiri hauek aurkezteko:
 - Kidegoan sartzeko eskatutako tituluaren fotokopia konpulsatua.
 - Nortasun agiri nazionalaren fotokopia konpulsatua.
 - Zinpeko aitortpena edo agindua inongo administrazio publikotik ez dutela zigor-espediente baten ondorioz egotzi. (*eredua hezkuntzako web orrian egongo da*)
 - Ezintasunaz baliatu diren izangaiek ziurtagiri eguneratuta aurkeztu behar dute.
 - Medikuziurtagiria. (*non gaixotasunik ez izatea eta aukeratutako kidego eta espezialitateko eginkizunekin bateraezina den muga fisiko edo psikologikoaren eraginik ez izatea egiaztatzen den*)
 - BH eta HEO kidegoko opositoreek prestakuntza pedagogiko- didaktikoaren ziurtagiri edo tituluaren fotokopia konpulsatua, edo aurkeztetik salbuetsita daudenaren agiria.
- **Abuztuaren 11an** praktiketako funtzionarioei eskainitako bakanteen zerrenda.
- **Abuztuaren 11 eta 12an** praktiketako lanpostuen eskaera telematikoa.
- **Abuztuaren 16an** esleipenen ebazpena.

PRAKTIKAK EGITEKO LANPOSTUA ESKATZEAN KONTUTAN HARTZEKOA:

- Hurrengo lekualdatze lehiaketan parte hartzea derrigorrezkoa da.
- Behin-betiko lanpostua **derrigorrez ematekotan**, praktikak egin diren lurraldean emango dira.
- Behin-betiko lanpostua lortu ezean, orain eskatutako lanpostua bi ikasturterako izan daiteke.